

PRENTSA OHARRA

Adinekoen Egoitzako lanak aste honetan bukatuko ditu Urduñak

- *Aurreikusitako epean amaituko dituzte obrak. Gainera, egoitzako ohiko funtzionamenduan eragin minimoak izan dituzte.*

Urduña, 2016ko urriaren 25a. - Aste honetan bukatuko dituzte Adinekoen Udal Egoitzako hoditeria sistema berria instalatzeko lanak Urduñan. Halaber, hurrengo egunetan presioa eta ihesak kontrolatzeko frogak egingo dituzte, tutu berrituen funtzionamendu egokia ziurtatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoak egindako argibideei jarraiki, osasunerako ur beroaren zein kontsumorako hotzaren sare berria erabiltzen hasi aurretik, sistema osoaren garbiketa eta desinfekzioa egin beharko da. Ondoren sareko hainbat gune adierazgarrietan laginketa burutuko da. Emaizak bilduko dituzten txosten guztiak Eusko Jaurlaritzari bidaliko zaizkio.

Eragin gutxi

Egoitzaren ohiko funtzionamendua eten ez bada ere, obrek oso eragin gutxi izan dute bere eguneroko jardueran. Lanak aurreikusitako epean burutu dituzte.

Abuztuan hasi ziren obrak eta, orduetik, 49 pertsona egon dira, batazbeste, egoitzan. Horietatik 36k Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartutako plazak betetzen dituztelarik. Urrian zehar ohiko betetzea berreskuratzen ari dira eta, momentu honetan, 51 pertsona dago.

Sare zaharra

Obra hauek burutu behar izan dira urteen poderioz tutuak kaltetu direlako, izan ere, eraikina antzinakoa da. Horrelako zerbitzu batek eskatzen dituen osasun eta garbitasun irizpideak betetzeko soluzio bakarra sistema aldatzea zen.